

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

Basaurin motordun ibilgailuei erregaia hornitzeko instalazioak eta teknikoki erabilgarri dauden beste energia mota batzuk hornitzeko instalazio mistoak ezartzea arautuko duen Plan Bereziarren hasierako onespena.

Basauriko Lurralde Politika eta Kontratazioko Ordezkariek (uztailaren 29ko 1996/2019 Alkatetza Dekretu bidezko eskuordetza) 1697/2021 zenbakidun Dekretua eman da:

Hirigintzako atalburuak ebazpen-proposamena eman du. Honelaxe dio:

Basauriko Udalak erabaki du plan berezi bat idazten hasia, udalerrian motordun ibilgailuentzako hornidura-instalazioak jartzea arautzeko.

Izan ere, gizarteak nabarmen eskatzen du horrelako jarduerak arautzea, eta Udalak uste du hori bideratu dezakeela bere plangintza-ahalmenaren bidez.

Duela urte batzuk Goiriko biribilgune ondoan dagoen gasolindegiaz gain, garai batetik hona beste gasolindegia batzuk ireki dituzte Bilbondo merkataritza-gunean, Urbi auzoan eta Cervantes etorbidean; eta beste batzuk ere izapidetzen ari dira.

Zerbitzugune ugari agertzen ari dira Estatuko legedi berriaren babesean, eta, horren aurrean, logikoa da halako jarduerak nolabait antolatu behar izatea; bereziki gasolindegia bizitegi-lurzoru hiritarrean edo horren inguruetan jarri nahi direnean.

Ez da zalantzan jartzen merkataritza- edo industria-lurzoruetan horrelako jarduerak instalatzeko aukera badagoela —hidrokarburoen sektoreko lehiaren defentsarako Estatuko araudia zuzenean aplikatuz—. Baina zentzuzkoa dirudi jarduera behar bezala arautzea, gasolindegia jarri nahi direnean etxebizitzetarako, herritarrentzako edo aisiarako gune libreterako, osasun-instalazioetarako edo kultura-instalazioetarako aurreikusitako tokietan edo horien inguruneetan.

Era horretako erabakiak honako hauetan oinarritu daitezke: Espainiako Konstituzioan (45. artikulua honako hauek aurreikusten ditu, oro har: ingurumen egokia izateko eskubidea, eta botere publikoek bizi-kalitatea babestu eta hobetzeko eta ingurumena defendatu eta leheneratzeko duten betebeharra); Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Euskal Legean (3. artikulua garapen jasangarriaren printzipioa aipatzen du), eta Ingurumena Babesteko Euskal Legean (3.1 artikuluan ingurumen osasungarriko eskubidea aipatzen da).

Europar ere, 2018ko azaroaren 28an, Europako Batzordeak, Parisko akordioaren helburuarekin bat, bere ikuspegi estrategikoa aurkeztu zuen, 2050etik aurrera klimaren ikuspegitik neutroa izango den ekonomia baterako. Bestalde, 2020ko azaroaren 3an, Ministroen Kontseiluak 2050ean Espainiako ekonomia moderno, lehiakor eta klimatikoki neutroko epe luzerako bere estrategia onartu zuen (ELE 2050).

Dokumentu horrek erantzuten die Espainiak Europar Batasuneko estatu kide gisa eta Parisko Akordioarekin hartutako konpromisoak, eta, gehienez ere, 2050erako klima-neutraltasuna lortzeko bidea ezartzen du, trantsizio horrek ekonomiaren eta enplegu-sortzearen alorretan eskaintzen dituen aukerak identifikatuta. Bilatzen dutena da sektore estrategikoak garatzea: energia berriztagarriak, hidrogeno berdea, energia-biltegiratzea balio-kate osoan zehar eta mugikortasun jasangarriantza aurrera egitea. Horri esker, mugikortasunaren eta garraioaren hiru laurdenek baino gehiagok (%79) jatorri berriztagarriko azken energia erabiliko dute.

Horrek esan nahi du espero daitekeela epe ertain eta luzera jatorri fosileko hidrokarburoen eskaera txikiagoa izatea, eta, aldi berean, beste azpiegitura mota batzuen eskaera handitzea (elektrolinerrak, erregai berdeak, hidrogeno berdea, etab.); eta, hori, garapen jasangarriko epe luzeko estrategia baten esparruan aurreikusi behar da.



Beraz, hasieran aipatutako plan bereziaren bidez forma eman nahi zaio jurisprudentziak toki erakundeei beren plangintza-ahalmenaren barruan aitortzen dien ahalmenari eta hautemate diskrezionalerako tarte zabalari.

Izan ere, mota horretako tresnen helburua da, besteak beste, hiri- edo landa-ingurunea zaintzea eta hobetzea, hiri-hobekuntza eta -berrikuntza eragiketak egitea eta hiri-lurzoruan zuzkidura publikoak edo antzeko beste edozein objektu sortzea (HLeL, 59.2,

c) artikulua). Antolamendu xehatua izango litzateke, ez egiturazkoa; eta, beraz, ez luke plangintza orokorraren maila hierarkikoa izango —HAPOa garatu nahi baita, antolamendu xehatuari dagokionez—.


Planeamendu hori izapidetzeak eskatzen du hirigintza araudian aurreikusitako kautela- neurriak hartzea, ekiditeko aurreikusitako ordenazioarekin bateraezinak izan daitezkeen erabilerak kontsolidatzea, plan berezia onesteko beharrezko denbora igarotze soilagatik.

Hori guztia horrela, ez dudanez eragozpen juridikorik ikusten; aintzat hartuta gai hau Alkatetzaren eskumena dela (Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j) artikulua araberak); sinadura Lurralde Politika Arloko zinegotziari eskuordetu zaionez (uztailaren 29ko 2996/2019 Alkatetza Dekretua), eta Lurralde Politika eta Kontratazio Informazio Batzordearen 2021eko maiatzaren 4ko saioan Plan Berezia aurkeztuta, Hirigintzako atalburua naizen honek honako hau aurkeztu dizut:

Ebazpen proposamena

Lehenengoa: Hasierako onespina ematea Basaurin motordun ibilgailuei erregaiak hornitzeko instalazioak eta teknikoki erabilgarri dauden beste energia mota batzuk hornitzeko instalazio mistoak ezartzea arautuko duen plan bereziari —dokumentua erantsita doa, eta ebazpenari atxikitzen zaio, modu banantezinean— Hasierako onespina indarrean sartuko da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik, baina inguru-mende-txosten estrategikoak xedatutakoaren mende egongo da.

Bigarrena: Aurreikusitako zehaztapenak indarreko hirigintza-araubidea aldatzea dakarten eremuetako onespina, baimen eta lizentzia oro emateko prozesuak etetea, HLeL 85 artikuluan xedatutakoarekin bat. Zehazkiago, hasierako onespina jasoko duen plan berezian adierazitako «eremu sentikorrei» eta horien babes-bandei dagozkienak. Honek, hasierako onesten dan plan berezian, dokumentazio grafiko O.01an, adierazten dira.



Eteteak urtebete (1) iraungo du, gehienez.

Hirugarrena: Bi hilabeteko jendaurreko informazio-epea zabaltzea, iragarkia jarrita Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, lurraldean zabalkunde handienetakoa duten egunkarietako batean eta Udal honetako iragarki-taulan, interesdunek espedientea aztertu, eta egoki iritzitako alegazioak egin ahal izateko.

Espedientea interesdunen esku egongo da Udalaren egoitza elektronikoan [helbidea: <https://www.basauri.eus>].

Laugarrena: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumeneko Organoari espediente osoa bidaltzea, ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozedura aplikatzeko (ingurumen-ebaluazio-ko indarreko araudiak ezarritako baldintzetan).

Bostgarrena: Interesdunei hau guztia jakinaraztea.

Hori guztia horrela, dagokion dokumentazioa badagoela egiaztatu eta gero, eta Lur-zoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95.2 artikuluari jarraituta (lege bereko 97.1 artikuluekin eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j) artikuluekin bat), zera

**EBAZTEN DUT:**

Goian jasotako proposamena onestea eta bere horretan Erabaki bihurtzea.
Basaurin, 2021eko maiatzaren 5ean.—Alkatea, Asier Iragorri Basaguren